


Baña, Jesús da egia, eta  
 Zu zinan egi zalea,  
 Orreche gaitik; o! Madalena!  
 Kristo zan zure maitea,  
 Nogaz zenduan zuk bizi gura,  
 Nogaitik bere illtea.  
 Nogaz gezurra etzendulako  
 Charto nai geratutea,  
 Bere etsayak emon eutsuen  
 Kastiguz eriotzea.

¡O neskatilla Sara-ko gazte  
 Fedez bardiñik bagea!  
 Ill bear eta kantetan dozu  
 Birjiñ-Amaren Salbea,  
 Lirio guri ziñan denboran  
 Ikusgarrizko loria,  
 Guillotiniaz gorriak zuri  
 Ebagi arren samia,  
 Orain zeruan gozetan dozu  
 Martiaren koroia.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

## LARRALDEKO MADALENARI OROITZ BAT



*(Irugarren sariya irabazi duen moldaera)*

I

Nork eta zerk nau gaur erautziko  
 Detana senti indarrez esan!  
 Nork eta nola neri galazi  
 Barrendik irten nai duena joan!  
 Pisti chikiak ez du kantatzen  
 Erautzi gabe mendi maldetan?  
 Arrano aundia odoi-etatik  
 Dijoanian panparroi egan  
 Bere marruen otsa legorra  
 Ez du zabaltzen lurren gañean?  
 Bai! bai nik ere zabalduko det  
 Datorkiana nere barrendik,

Ez arranoen eta pistien  
 Deadar utsa bezelakorik!  
 Ifar-aizea ari danian  
 Arboltegien osto tartetik  
 Adiarazten ansi gozoak  
 Ta baratz-soroaren gañetik,  
 Ala nik ere senti detana  
 Kantatuko det ai! biotzetik!

II

O! Madalena Larraldekoa  
 Saratar dontsu eta ezitia,  
 Iñoiz ezdana aztuko zure  
 Oroimen-doai chit naigarria!

Zure erritik ziñana izan  
 Nafarroako Bera etorria!  
 Berako eleizan topa zenuben  
 Zeruetao zuzen bidia  
 Egin eta artu zenubelako  
 Konfesioa ta Jaun aundia!

## III

Pinet buruzagi agintaria!  
 Baldin badezu iñon zentzurik  
 Esan gaitzazu, gure Madalen  
 Zergatik dagon kartzelaturik!  
 Eta diozu ill bear zula!  
 Eta gañera penak arturik!  
 Neskach fededun eskualduna da,  
 Ta kontu Pinet eñ orlakorik!  
 Zergatik Euskal-erriakjartzen  
 Dakizki etsayak dar-daraturik!

## IV

O! zer ikara-garrizkogaba!  
 O! zer chimistak! o! zer turmo-  
 Bazirudiyen dana bat egin [yak!  
 Naizutela lur ta zeru-goyak!

.....  
 .....!

O! Jaungoikoa!... zer da argi ori  
 Azaltzen dana gure gañian...!  
 Ta kanta ori mendirik-mendi  
 Ibairik-ibai Euskal-errian  
 Itsas lurrean aditzen dana  
 Nondikan dator!!.....

.....  
 Ama Birjiñen mantu urdiñen  
 Orri tartean estalirikan  
 Gure Madalen da zerurutzen  
*Salve Regina* kantaturikan!

FRANZISKO LOPEZ ALÉN.

